

GARAPENAREN EKONOMIARI LOTURIKO PENTSAMENDU EKONOMIKOEN BILAKAERAREN HURBILKETA BAT

ARTITZAR ERAUSKIN TOLOSA

Ekonomia Aplikatua I Saila

Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Comandante Izarduy kalea, 23 zenbakia, 01006 Vitoria-Gasteiz

artitzar.erauskin@ehu.es

MIKEL ZURBANO IRIZAR

Ekonomia Aplikatua I Saila

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Lehendakari Agirre etorbidea, 83 zenbakia, 48015 Bilbo

mikel.zurbano@ehu.es

ELENA MARTINEZ TOLA

Ekonomia Aplikatua I Saila

Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Comandante Izarduy kalea, 23 zenbakia, 01006 Vitoria-Gasteiz

elena.martineztola@ehu.es

LABURPENA

Artikulu honek garapenaren politika ekonomiko ezberdinek, XX. mendearen erdi aldetik aurrera, garapen ekonomikoari buruz azaldu dituzten ekarpen esanguratsuenen laburpen bat aurkeztea du helburu. Horretarako,

Garapenaren Teoria Ekonomikoarekin zerikusia duten paradigma ezberdinak defendatzen dituzten pentsamendu korronte batzuen ezaugarri nagusienak landuko dira, besteak beste: herrialde baten industrializazioa ezinbesteko irtenbide moduan planteatzen duen Modernizazioaren Teoria; Teoria Estrukturalista, modernizazioaren alternatiba moduan sortu zen eskola heterodoxoa, lehenengo aldiz Zentro-Periferia sistemaren ideia planteatu zuena; Garapenaren Teoria Neoliberalak, azpigarapena Estatuaren partehartzearen ondorioz sortzen den merkatuaren funtzionamendu ezegokiak eragiten duen egoera bezala ulertzen duena; eta, Garapenari buruzko Hautabidezko Teoriak, orokorrean, banakako oinarrizko beharrak asetzearen garrantzia azpimarratzen dituztenak.

Gako hitzak: Modernizazioaren Teoria, Teoria Estrukturalista, Mendekotasun Teoria, Garapenaren Teoria Neoliberalak, Garapenari buruzko Hautabidezko Teoriak.

JEL kodea: B2.

1. SARRERA

Hazkundera eta aurrerapena ekonomialarientzat oinarrizko gaiak izan dira ekonomia zientzia bat bilakatu zenetik. Jatorri teorikoan merkantilisten eta fisiokraten eskolak aurki daitezke baita ekonomialari klasikoak ere. Baina, XX. mendean, lehenengo aldiz, garapenari buruzko ekonomia jakintza-arlo desberdinetatik begizatzen hasi zen eta esan daiteke Bigarren Mundu Gerra ostean sortu zela Ekonomia Zientziaren azpi-diziplina zientifiko moduan.

Garapenari buruzko ekonomiari loturik pentsamendu korronte ezberdinak existitzen dira. Dena dela, komenigarria da aurretiaz bi kontzeptu bereiztea. Batetik, garapenaren politika ekonomikoa, diziplina anitzeko fenomeno moduan ulertua, aldagai ekonomikoez gain aldagai politikoak, sozialak, geografikoak eta beste askoren erabilera eskatzen duena, zeinak garapen ekonomikoari buruzko ezagutza zientifikoaren multzoa osatu eta pentsamendu merkantilistatik abiatu eta gaur egun arteko ibilbidea egin duen. Bestetik, Garapenaren Ekonomia kontzeptua dugu, gutxien garatuta dauden garapen bideko herrialdeen azterketaz arduratzen den arlo zientifikoa, hots, gutxien garatuta dauden herrialdeen baldintza, ezaugarri eta garapen ekonomikoa bultzatzeko politiken azterketaz arduratzen dena.

Artikulu honetan zehar, XX. mendearen erdi aldetik aurrera pentsamendu ekonomikoaren eskola ezberdinek garapenaren politika ekonomikoari buruz defendatu dituzten hainbat kontzeptu aztertuko dira. Ondorengo ataletan, beraz, garapenaren politika ekonomikoari loturiko paradigma ezberdinak jasotzen dituzten pentsamendu korronte batzuk

landu dira. Honela, bigarren atalean, modernizazioaren teoria aldarrikatzen zuten Walt Whitman Rostow, Paul Rosendenstein-Rodan, Ragnar Nurkse, Arthur Lewis, Albert O. Hirschman eta François Perroux autoreen ekarpenak bildu dira; hirugarren atalean, teoria estrukturalista eskola heterodoxotik abiatu eta bere ordezeko teoria erradikala bezala izendatu den mendekotasun teoriari buruzko zertzelada batzuk jasotzen dira; laugarren atalean, eskola neoliberalaren bilakaera eta bere ideologiaren paradigma bihurtu zen Washingtongo Kontsentsua azalduko dira; bostgarren atalean, garapenari buruzko hautabidezko teoria moduan sailkatu ditugun Neo-instituzionalismoa edo Erakunde Ekonomia Berria (EEB), Tokiko Giza Garapena (TGG), Generoa eta Garapena (GEG) eta, amaitzeko, Sumak Kawsay eta Suma Qamaña-ren ideia nagusiak azalduko dira. Azken atalean, guztiaren sintesi bat jasotzen da.

2. MODERNIZAZIOAREN TEORIA

Bigarren Mundu Gerra ostean hasi zen garatzen Modernizazioaren Teoria, besteak beste, Alvin Y. So-k (1990) dioen moduan hiru elementu nagusi eta historikoez bultzatuta. Alde batetik Amerikako Estatu Batuak (AEB) munduko potentzia bilakatu zen. Mendebaldeko herrialdeak (Britainia Handia, Frantzia eta Alemania esaterako) Bigarren Mundu Gerrak erabat ahulduta utzi zituen, AEB, ordea, indarturik atera zen eta Marshall Plana indarrean jarriaz suntsitutako Europa mendebaldeko herrialdeak berreraiki nahi izan zituen.

Bestetik, mugimendu komunista bateratua hedatzen ari zen mundu mailan, Sobiet Batasunak Europa Ekialdeko herrialdetan eta Asian Txina eta Korean bere eragina zabaldu zuen.

Hirugarrenik, Asia, Afrika eta Latino Amerikan europar inperio kolonial asko desegin ziren eta Hirugarren Munduan nazio-estatu berri ugari sortu ziren. Nazio-estatu sortu berri hauek beraien ekonomia bultzatu eta independentzia politikoa areagotuko zien garapen eredu bilatu nahi zuten.

Gauzak horrela, Modernizazioaren Teoria 1950eko hamarkadan asko hedatu zen, nahiz eta ondorengo hamarkadetan oso kritikatu izan zen. Teoria honek, garapena banakako BPGren hazkundearekin identifikatzen zuen eta azpigarapena “gurpil zoroak” edo ekonomiaren abialdia eragozten zuen txirotasun tranpak eragindako atzerapen egoera bat bezala planteatzen zuen (Bustelo, 1989).

Horrenbestez, Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan garapenaz kezkatuak zeuden ekonomialari gehienak berriki independizatu ziren ekonomien arazoei irtenbideak aurkitzen saiatu ziren, eta “herrialde azpigaratuak”

garapen ekonomikoa bultzatzeko, politika berri baten beharra ikusi zuten. Ekonomialaria horien arten, W. W. Rostow (1916-2003) estatubatuarra izango da ezagunena. “*The Stages of Economic Growth, a non Communist Manifesto*” (1959) artikuluan garapena hainbat etapetan banatzen den prozesu historiko lineal moduan definitu zuen, horrez gain, industrializazioaren funtsezko papera azpimarratu zuen. Hots, herrialde guztiek, garai ezberdinetan bada ere, garapenaren ibilbide antzekoa egin behar dute, eta prozesu honek antza handia du leku guztietan. Beraz, etapa hauen bidez, garapen-bideko herrialdeek herrialde garatuen bidea jarrai dezakete.

Rostow-ek bost hazkunde-fase edo garai bereizten ditu gizarte tradizional batetik masen kontsumo garaira heldu arte:

- 1) *Abiapuntua gizarte tradizionalaren aroa*: Ekonomiaren jarduera nagusia lehen sektorera, produktibitate baxuko nekazaritzara mugatzen da. Ekoizpen metodo konstanteak erabiltzen dira eta ekoizpenaren helburu nagusia autokontsumoa da. Soberakinak badaude, merkatuan saltzen dira. Gizarte horretan orokorrean botere politikoa lur-jabeek izango dute eta mugimendu soziala eskasa da. Horrez gain, batzuetan gizartetik kanpo dauden dinamikek eta beste batzuetan gizarte barneko dinamikek bultzatuta aurrerapen ekonomikoa posible denaren ideia zabaltzen hasten da.
- 2) *Hazkunde-abiialdirako aurrebaldintzen ezarpen aroa*: Nazioarteko merkataritzari esker nekazaritza zein industria ekoizpen funtzioetan berrikuntza teknikoak barneratzen hasten dira, manufaktura-enpresa berriak agertzen dira inportazioak ordezkatu asmoz. Bestalde, oinarritzko kapitala gehienbat komunikabide eta garraiobideetan inbertitzen da eta jarduera hauek aurrera eramateko finantza-erakundeak sortzen dira. Prozesu hau Mendebaldeko European Industri Iraultzaren ondoren gertatu zen eta kolonizazioen bidez beste herrialde batzuetara hedatu zen.
- 3) *Hazkunde-abialdi aroa*: Fase honetan, hazkundea sistematikoa bilakatzen da, izan ere enpresa zein industriak lortutako mozkinen etengabeko berrinbertsioak hazkundea hedatzea eragingo baitu.
- 4) *Heldutasuneranzko bidea*: Teknologia ekoizpen sektore guztietara hedatzen da eta ekonomia edozer ekoizteko gai dela uste da.
- 5) *Masen kontsumo garaia*. Azken aldian, masa-kontsumo handiko garaian, biztanleriak edozein ondasun eta zerbitzu eskuratzeko aukera izatea lortzen da eta Ongizate Estatuak agertuko da.

Argi geratzen denez, Rostowek proposatzen duen munduko ekonomia-eren bilakaera eskemak, garapenaren aroak sistema kapitalista batean bakarrik kontuan izaten ditu eta ez ditu ez sozialismoa ezta komunismoa ere aro ezberdinen arteko pausu moduan aurreikusten, egile marxista askok horregatik

kritikatu zuten (Naredo, 1996). Helburu nagusia, oparotasun egoera bat lortzea zuten eta ekonomiaren hazkunde tasaren azelerazioa sortzen zuten faktore eragileak bilatu eta azaldu nahi zituen.

Bustelok dioenez (1992), aitzindarien arabera garapena lortzea ahalbidetuko zuten bitartekoak ziren; industrializazioa, barne merkatua babestea eta Estatuaren esku-hartzea. Industrializazio prozesua indarrean jartzeko ereduari buruzko eztabaidak, bi postura kontrajarri hartu zituen. Alde batetik, ekonomiaren sektore ezberdinen hazkunde parekatua defendatzen zuena, barne merkatuaren itotzea ekidingo zuena. Bestetik, hasiera batean sektore konkretu batzuen garapena proposatzen zuen ideia, ondorengo urteetan ekonomiaren gainontzeko sektoreen bultzatzaile izango zirenak. Garapen orekatua defendatzen zuten egileen artean Rosendenstein-Rodan gailentzen da bere “*big push*” edo bultzada handia ideiarekin eta Nurske eta Lewis txirotasunaren gurpil zoroari buruzko ideiekin. Bestalde, Hirschmanek ez dut bat egiten garapen mota honekin eta Garapen Desorekatuaren aldeko apustua egiten du. Perroux-ek aldiz, “*pôles de croissance*” edo Hazkunde Poloen Teoria defendatzen du.

Rosendenstein-Rodan (1960) “*big push*” edo bultzada handiaren ideia plazaratzen lehena izan zen. Bere ustez, “*big push*” bezala izendatu zuten estrategiaren bidez gobernuak jarduera ezberdinetara bideratutako pizgarriak planifikatu behar lituzke ekonomia prozesuari bultzada handia emateko. Hau da, ekonomia txirokek eskariaren hazkunde handi baten beharra dute, merkatuaren tamaina handi araziko duena, horrela enpresarietaz industrializazioak eragiten dituen kostu finakoak bere gain hartzea errentagarria izango baita. Bultzada handiaren logikaren arabera, eskaria estimulatu duen edozein neurri, gastu publiko handia, atzerritar laguntza, mineralen aurkikuntza, edota baliabide naturalen prezioen igoera baliagarria izango da.

Bultzada handiaren ideiak bi kritika nagusi jasan ditu: Alde batetik, Hirschman-en aritik, baliabide naturalen goraldiek bultzada edo “*backward and forward linkages*” txikia dute, eta ondorioz ekonomiaren gainontzeko sektoreetan duen eragina oso mugatua da. Bestetik, ekonomiaren “boom”-ak aztertzen adituak direnen arabera, “boom” goraldiek eragiten dituzten diru-sarrerara gehienak kontsumitu egiten dira inbertitu beharrean (Sachs & Warner, 1999).

Beste bi autore esanguratsuk, Nurkse (1955) eta Lewis-ek (1968 {1955}), Rosenstein-Rodanen bultzada handiaren ideia ontzat hartu eta kapitalaren metaketaren beharra azpimarratu zuten, batik bat, aurrezkiaren bidez lortutako kapital metaketarena. Honi esker, txirotasunaren gurpil-zorotik ihes egiteko aukera izango lukete bertan harrapatuta aurkitzen ziren herrialdeek. Laburki azaltzeko, egile hauen arabera gurpil-zoroen sortzaile nagusiak hurrengoak ziren; alde batetik, iraupeneko errentek eragindako

aurrezki maila eskasa eta, bestetik, enpresariak merkatu lokal ahula eta lanaren eraginkortasun maila baxua izanik posibleak lortzeko aukerarik ez aurreikustearen ondorioz buruturiko inbertsio urria. Arrazoi bat edo besteagatik, herrialde hauen ekonomia bere ekoizpen ahalbideen mugaren barneko egoera batean aurkitzen zen eta ez zuten hazkundera azeleratzea lortzen. Beraz, Lewisen ustez garapenaren ekonomia erronka nagusia komunitate batek bere nazio-errentaren %4 edo %5 aurreztu eta inbertitzetik, borondatezko aurrezkiak %12 edo %15era igoko duen prozesua ulertzea izango da. Prozesu horretan, garai hartako egile gehienek industriaren garrantzia azpimarratu bazuten ere, Lewis-ek sektoreen arteko harremanak aztertu zituen.

Bi sektore nagusi bereizten ditu Lewis-ek: alde batetik, sektore kapitalista eta, bestetik, sektore tradizionala. Lehenengoan, soldatapeko langileak aritzen dira eta ekoiztutako produktuak saltzean etekinak lortzen dira. Bigarrenean, banakako enpresak daude eta familia barruan banatzen da egin beharreko lana. Lanaren produktibitate marjinala oso txikia da eta ekoizpenaren gehiengoa kontsumora bideratzen da.

Sektore kapitalistaren hazkundera sektore tradizionalerako eskulana xurgatuz lortuko da. Beraz, bi sektoreen soldatak antzekoak badira ere, sektore kapitalistarena zertxobait altuagoa izan behar da beste sektorearen langileak erakartzeko. Sektore tradizionalan eskulan asko dagoen bitartean sektore kapitalistak soldatak konstante mantentzen ditu eta etekinek gora egiten dute (aurrezkiak eta kapital-metaketa igoaz). Ondorioz, eskulan gehigarriaren beharra izango du eta prozesuak jarraituko du. Etekinak berriz ere inbertituko dira, kapital gehigarriaren kopurua ugalduta eta nazio-errentaren igoera bultzatuz. Azkenean, eskulanaren migrazioa bukatzean, garapenaren prozesua amaitu egongo da.

Aitzitik, Hirschmanek (1961) kontrako irtenbidea proposatzen du: ekonomia sektorerik aktiboetan inbertitu, ondoren sektore hauek izan daitezkeen ekonomia gainontzeko sektoreen indar eragile. Aukera honen aldeko apustua egin zuen, Rosenstein-Rodanek proposatutako bultzada handiaren ideia bidera ezina iruditzen baitzitzaien, inbertsio ahalmen eskasa eta ekonomia sektore ezberdinen arteko harreman ahula zela eta. Azpigaratutako herrialdeen industrializazio dinamika deskribatzeko bi ekintza mota bereizten zituen Hirschmanek: batetik, atzeranzko kate-mailak zeuden, enpresariak kostuak murrizteko inportatutako ondasunak herrialdean ekoiztutakoekin ordezkatzeko lituzkete. Beste alde batetik, aurreranzko kate-mailak bezala ezagutzen direnak, hauek ere, merkatuak dibertsifikatu eta zabaltzeko asmoarekin enpresariak eragindakoak, beraien ekoizpena beste ondasun batzuetara zabalduz. Beraz, hasierako sektore indar eragile batetik abiatuz, ekonomia erabateko industrializazioa lor daiteke atzeranzko eta aurreranzko kate-maila ekintzekin. Dena dela, errealitatean ez zen aurreikusitakoa bete, enpresariak beti ez baitziren hornitzaileez

aldatzeko prest egon, batik bat, inportazioei esker teknologia maila altuagoa eta merkeagoak ziren ondasunak eskuratu baitzitezaketen. Egoera horretan, Estatuak esku hartu behar zuen, arantzelez baliatuz, inportazioak ordezkatzeko zituen ordezeko industriak ezarri.

Perroux-ek (1973) tarteko ikuspegi bat proposatu zuen “pôles de croissance” edo hazkunde-polo bezala izendatu daitekeen ideiarekin:

“... el crecimiento no aparece en todas partes al mismo tiempo; se manifiesta en puntos o polos de crecimiento, con intensidad variable; se difunde por medio de diferentes canales, con distintos efectos terminales sobre el conjunto de la economía.

... una visión que surge de la observación de países de crecimiento lento, pero que se puede comprobar igualmente en la política de Estados modernos” (Perroux, 1973).

Hazkunde-poloen kontzeptua honela definitzen zuen: ekonomiaren hazkunde dinamikoa sorraraz dezakeen industria lider baten inguruan beraien artean input-ouput loturen bidez estuki erlazionatutako industrien multzoa. Bai industria liderra bai sektore independenteak ekonomiaren gainerakoa baino azkarrago hazten dira. Industria eragileak (batz besteko hazkunde maila baino handiagoa duenak) industria-gunea (industria eragilearen inguruan elkartzea) sortuko du eta azkenean hazkunde-poloa sortuko da.

Egile honen arabera ekonomia batean egitura aldaketak gertatzen dira bai industria berriak agertu eta zaharrak desagertzen direlako bai industria bat edo batzuen zabalkundearen eraginez.

Industria jakin batzuen lurralde-kontzentrazioa proposatzen zuen, enpresen gertutasuna eta giza harremanak eraikitzea teknologi guneen sorrera eta informazio trukaketak mesedetuz hazkunde-polo bezala jardun zezaten. Geografikoki, hazkunde-poloak berrikuntzaren gune sortzaileak eta hedatzaile espazialak bezala ulertzen dira (Friedman, 1973). Zentzu honetan, Perroux-ek, garapenaren eragile nagusia berrikuntza zela azpimarratzen zuen. Egile honentzat, hazkundera eta garapena fenomeno independenteak dira, beraz egitura aldaketak ezinbestekoak dira hazkundera eman dadin, zeinak aldi berean garapenean eragingo duen, nahiz eta, garapena izango den hazkundera ahalbidetu eta mugatuko duen indar eragilea (Perroux, 1964).

3. TEORIA ESTRUKTURALISTATIK MENDEKOTASUN TEORIARA

Eskola estrukturalista, Garapenari buruzko Ekonomiaren eskola heterodoxoa izan zen, modernizazioaren alternatiba bat. Estrukturalismoa, 1950eko hamarkadaren erdialdean sortu zen Raul Prebisch (1950) eta Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoko (CEPAL)

hainbat ekonomialari Latinoamerikak nazioarteko merkatuetan lehiatzeko zituen zailtasunaz ohartzean. XX. mendeko 90eko hamarkadan eskola neo-estruturalista moduan berritu zenetik, egun globalizazioa eta garapenari buruzko eztabaidan aktiboki dihardu (Hidalgo-Capitán, 2011).

Raul Prebisch (1901-1985) ekonomialari argentinarrak hezkuntza neoklasikoa izan zuen. 1935ean Argentinako Banku Zentralaren zuzendari izendatu zuten eta bere gidaritzapean Banku Zentrala Nazioarteko Lanaren Zatiketa onartzetik industrializazioa defendatzera igaro zen. Industrializazioa ahalbidetzeko funtsezkoa zen inportatzen ziren ondasunen izaera aldatzea; kapital-ondasunen inportazioa bultzatu behar zen eta ez kontsumo-ondasunak.

Raul Prebisch-ek *“El desarrollo económico de la América Latina y algunos de sus principales problemas”* eta *“Estudio económico de América Latina”* argitaratzean lehengo aldiz Zentro-Periferia sistemaren ideiarekin garapena jaso zen. Dokumentu hauetan aurkezten zen azterketaren arabera, mundu kapitalista bi herrialde mota ezberdinekin kontzeptualizatu daiteke: *zentroa*, ekoizpen-teknika kapitalistak barneratzen aitzindariak diren ekonomiekin osatua eta *periferia*, aurrerapen teknologikoak, batik bat, esportatzera bideratuko diren elikagaiak ekoizten dituzten sektoretan barneratzen dituen ekonomiekin osatua egongo da. Beste modu batera esanda, AEBek eta Europak zentroa osatzen zuten eta Latinoamerikak zein Hirugarren Munduko gaitzetzeko herrialdeek, berriz, periferia.

Teoria estrukturalistaren azterketak arreta berezia eskaintzen dio Zentro-Periferiak aurkezten zituen ekoizpen egitura ezberdinei. Hasierako ekarpenak Nazioarteko Lanaren Zatiketaren eremuan oinarritzen ziren, herrialde azpigaratuak lehen sektoreko ondasunen, osagai teknologiko gutxi dituzten ondasunen, ekoizpenean espezializatzen zirenez, Periferiak teknologi aurrerapenak sortu eta barneratzeko zailtasunak zituen.

Prebisch-Singer-en tesiaren arabera Zentroko eta Periferiak herrialdeen arteko Elkartrukeko Erlazio Errealaren okerragotze bat eman zen lehenengoko alde, manufakturatutako produktuen esportazioan espezializatu baitziren eta hauen prezioak goranzko bilakaera izan zuten, nekazal ondasunen prezioetatik aldenduz. Ondasun manufakturatuen eskaera asko igo zen eta lehengaiena berriz ez, eskariaren joerak azalduko du prezioen bilakaera zehatz hori, ondorioz, Zentroko herrialdeak Periferiak herrialdeetako produktibitatearen handitzearen onuraren jabe egingo dira.

Honenbestez, egile estrukturalistek atzerriko lehiak eta barne-merkatuaren tamaina txikiak barne-garapena eragozten zuela ondorioztatu zuten eta ekonomia sendoago bat lortzeko sektore industrialaren bitartez nazio-barnean zegoen egitura birmoldatu nahi izan zuten. Hots, gehiegizko eskulanak barne eskarian sortzen zuten presioa arindu eta produktibitate maila areagotzeko merkatuaren tamaina handitu eta kanpo-lehia kontrolatzeko neurri zehatzak

indarrean jarri behar izan zituzten. Lehenengo urratsa, lehengaien eta nekazaritza-ekoizpenaren esportazio-baldintzak hobetzeko eskaera handitzea izan zen, eta bigarrena, manufakturak esportatzeko aukerak hobetzeko ahalegine-tan zentratu ziren. Bilakaera horretan Estatuaren papera funtsezkoa izan zen eskola honen arabera (Jubeto & Areskurrinaga, 2010).

Beraz, autore estrukturalistek egitura ekonomiko eta sozialen aldaketak eskatuko dituzte, bereziki, industria sektoreak gainontzekoetan izan beharko lukeen funtzio dinamizatzailea azpimarratuz. Gainera, produktibitate areagotzeko behararen premia azpimarratzen zuten, modu horretan kapitalaren pilaketa posible izango baitzen eta ondorioz beharrezkoak ziren egitura aldaketa ahalbidetu. Eraginkortasuna handitzeko teknologia barnertzea ezinbestekotzat aurreikusten zuten, inportazioa ez zen izango teknologia eskuratzeko aukera bakarra, bestela menpekotasun teknologikoa bultzatuko lukete, beraz azken hau ekiditeko barne industria teknologikoa bultzatu nahi izan zuten, industriari nekazaritzari baino garrantzi handiagoa eskainiz. Industria sektorean, industria astunari arinari baino lehentasun handiagoa eskaini zitzaion.

Gorago aipatu den moduan, teoria estrukturalistak Estatuaren eskuhartzea defendatzen du bai industria sektore hasiberria babesteko zein errentaren banaketa edo nazioarteko harreman ekonomiko orekatuagoak lortzeko ere. Teoria honetatik eratorritakoa da Mendekotasunaren Teoria, Paul Baran-en ekarpenei esker. Mendekotasunaren teoriak elementu neomarxistak Keynesen teoria ekonomikoarekin uztartzen ditu. Keynesen ikuspegi ekonomikoa kontuan izanik, menpekotasunaren teoriak oinarritzko lau zutabe ditu: 1) Barne eskari handi esanguratsua, merkatu nazionalari dagokiona, garatu; 2) nazio garapen maila areagotzeko industri sektorearen garrantzia onartzea ezinbestekoa da, bereziki sektore honek nekazaritza sektoreak baino balio erantsia handiagoa eragiten duelako; 3) langileen sarrera maila areagotu nazio merkatura bideratutako eskari agregatu handiagoa sortzeko; 4) nazio garapen baldintzak eta herrialdearen bizi kalitate maila hobetzeko gobernuaren betekizun eraginkorragoa sustatu.

Mendekotasun-eskolaren arabera, Hegoaldeko herrialdeen mendekotasunaren arrazoiak ez ziren produktibitate eza edo pobrezia. Herrialde hauen bilakaera kolonialismoak utzitako herentzia zen, menpeko garapen baten ondorio historikoa. Beraz, munduko periferia izateak eragiten zituen ondorio ezkorrak gainditzeko autonomia eta *zentroko* herrialdeekiko lotura apurtzea eskatzen zuen eskola honek.

4. GARAPENAREN TEORIA NEOLIBELARA: WASHINGTONGO KONTSENTSUA (WK)

Eskola neoliberala, Garapenaren Politika Ekonomikoaren eskola heterodoxo bat izan zen bere hastapenetan, modernizazioaren eskola ortodoxoa zen garaietan alegia. XX. mendeko 40ko hamarkadan sortu zen, Londoneko Ekonomia Eskola, Oxford, Cambridge eta Chicagoko Unibertsitateko eta Massachussetts-eko Teknologia Institutuko ekonomialaria ziren Colin Clark, Peter Bauer, Jacob Viner eta Robert Solow-en mintegi lanetan oinarriturik. XX. mendeko 60ko hamarkadaren erdialdera modernizazioaren eskola gainbeheran sartzean, eskola neoliberala Garapenaren Politika Ekonomikoaren eskola ortodoxo bihurtu zen.

1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980ko hamarkadaren hasieran garapen bidean zeuden herrialde gehienek hazkunde tasak, Asia Ekialdeko herrialde batzuenak ezik, ondoak izan zuten. Beraz, herrialde hauek indarrean zuten garapen eredua ez zela baliagarria ondorioztatu eta merkatuak garapenean duen paper positiboaren aldeko ideiak indarra hartu zuten. Hau da, eskola neoliberalak azpigarapena ekonomiaren geldialdi egoera bat bezala ulertzen du, hots, Estatuaren esku-hartzeak eragiten dituen merkatuaren funtzionamendu ezegoki batek eragindako egoera moduan. Ondorioz, azpigarapen egoera gainditzeko baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzearen aldeko apustu egiten du. Horretarako, alde batetik, zuhurtasun makroekonomikoa, hots, merkatuak liberalizatzeko neurriak eta ekonomia irekitzea ezinbestekotzat jotzen dute. Bestetik, inportazioak ordezkatzeko politika eta enpresa publikoen sorrerari loturiko ustelkeria kasu asko antzeman zirenez, arazo hauek gainditzeko Estatuaren parte-hartzea murriztea, gobernuen tamaina txikitzea eta sektore pribatuari garrantzi handiagoa ematea proposatu zuten. Beraz, pribatizazioak; desarautzea; kantitate murrizketa zein lizentzia eskaerak ezabatu; eta estatu-monopolioak eraitsi ziren. Azkenik, proposatutako erreforma neurri ezberdinak ahalik eta azkarren aurrera eramatea nahi izan zuten neoliberalak (World Bank, 2005).

1990eko hamarkadan garapenaren arazoari buruz Nazioarteko Finantza Institutuzioen (NFI) eta Iparraldeko herri garrantzitsuenetako (G-7) agintariek zuten iritzia Washingtongo Kontsentsuan (WK) laburbildu zen. Washingtongo Kontsentsua John Williamonek planteatu zuen 1989an “*What Washington Means by Policy Reform*” dokumentuan eta bertan Latinoamerikarako hamar neurri ekonomiko plazaratzen ziren. Gero zerrenda hori osatu eta ideologia neoliberalaren paradigma bihurtu zen.

Washingtongo Kontsentsuaren (WK) defendatzailearen ustez, behin ekonomiak egonkortuta, liberalizatu eta pribatizatutakoan garapenaren bidean jarriko ziren. Garapen hori etengabeko hazkundera gauzatuko zen eta hazkunde horren onurak denborarekin gizaratean banatuko ziren. Jakina

WK-k kritika ugari jaso ditu batez ere praktikan arazo handiak izan zituelako eta ez zirelako lortu espero izandako emaitzak, ez Ekialdeko ekonomien trantsizioan ezta Hegoaldeko herrialdeetan ere. 1990eko hamarkadako azken urteetan Kontsentsu berri bat sortuko zela ematen zuen eta Post Washingtongo Kontsentsu honen inguruan bi proposamen kaleratu ziren: bata moderatua, Washingtongo Kontsentsua baina giza aurpegiarekin eta Williamsonek berak onartua, hasierako 10 neurriei beste batzuk gaineratu zizkion eta “bigarren belaunaldiko” erreformak bezala ere ezagutzen dira (1. taulan jasotzen dira hasierako 10 neurriak gehi ondorengo beste 10) eta bestea erradikalagoa, Stiglitzek bultzatutakoa. Esate baterako “*Más instrumentos y metas más amplias para el desarrollo. Hacia el Consenso Post-Washington*” artikuluan Stiglitzek (1998, or. 48) ondokoa jasotzen du:

“El Consenso de Washington abogó por el uso de un pequeño conjunto de instrumentos... para lograr una meta relativamente estrecha: crecimiento económico. El Consenso post-Washington reconoce tanto que necesitamos una serie más amplia de instrumentos como que nuestras metas de desarrollo son mucho más amplias”.

Diru-sarreraren birbanaketa, ingurumena, osasuna eta hezkuntza hobetzearen beharra azpimarratzen ditu Stiglitzek. Senek ere garapenaren helburuak zabaltzearen beharraz hitz egin du gaitasunen teoriak baliaturik.

1. Taula: Washingtongo eta Post Washingtongo Kontsentsuen neurriak

Washingtongo Kontsentsua	Post Washingtongo Kontsentsua (aurreko 10 neurriez gain ondorengoak)
1) Defizit publikoa gutxitzeko diziplina fiskala	11) Taldeko Gobernantza
2) Gastu publikoaren aldaketa	12) Ustelkeriaren aurkako borroka
3) Erreforma fiskala	13) Lan merkatu malguak
4) Liberalizazio finantzarioa, batez ere interes-tasena	14) Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) akordioak
5) Truke-tasa konpetitiboa	15) Finantza araudi eta estandarrak
6) Merkataritzaren liberalizazioa	16) Kapitalaren irekitze zuhurra
7) Atzerriko inbertsio zuzenaren liberalizazioa	17) Bitartekari gabeko truke-tasa erregimen
8) Enpresa publikoaren pribatizazioa	18) Banku zentral independenteak, baina helburu nagusia inflazioa kontrolpean izatea
9) Merkatuaren desarautzea, bai produktuen merkatuena bai lan-merkatuarena ere	19) Gizarte babes-sarea
10) Jabego-eskubideen (pribatuak) bermea, batez ere sektore informalean	20) Pobrezia erauzketa

5. GARAPENAREN TEORIA ALTERNATIBOAK

5.1. Neo-Instituzionalismoa edo Ekonomia Instituzionalista Berria (EIB)

Ikuspegi honek jatorria estatubatuar instituzionalismoan du. Thorstein Veblen (1857-1929) egile aitzindari moduan onartzen bada ere, John Commons (1842-1945) eta Clarence Ayres (1891-1972) ere azpimarragarriak dira. Ikuspegi hau XIX. mendearen amaieran Ipar Amerikako mundu akademikoan paradigma nagusia zen. Ekonomia sistema ireki eta dinamiko moduan ulertzen zuen eta orekari baino garrantzi handiagoa eskaintzen zion ohitura, instituzio eta botere harremanek ekonomiaren eboluzioa zehazten zuten prozesuari. Beste gauza batzuen artean, instituzio egitura ezberdinek eragiten zituzten birbanaketa ezberdinak aztertzen zituzten.

Ekonomia Instituzionalista Berriak instituzioak ekonomiaren ikerketa-agendara itzuli ditu. Horretarako, Ronald Coasen *transakzio-kostuen* nozioa, Douglas Northen *joko-arauak*, Oliver Williamsonen *enpresen gobernantza* eta Elinor Ostromen *ondasun erkideen gobernantza* kontzeptuak oinarritzkoak izan dira. Ekonomiako Nobel saria Coase (1991), North (1993), Williamson (2009) eta Ostromek (2009) jaso izanak argi uzten du azterketa instituzionalista modernoaren aurrerapenak aintzatesten direla (Caballero, 2011).

Coasek transakzio-kostuen nozioa plazaratu baino lehen, ikuspegi neoklasikoaren arabera transakzio kosturik ez zegoen ezta instituzioen beharrik ere, merkatu eraginkorrak ziren ekonomiaren ezaugarri nagusia. Egoera horren aurrean, Ekonomia Instituzionalista Berriaren oinarriak teoria neoklasikoaren aldaketa batzuk eskatzen ditu baina eskasia eta lehiakortasuna, teoria mikroekonomikoaren tresna analitikoak mantentzen ditu, nahiz eta arrazionaltasuna alde batera utzi eta denboraren dimentsioa barneratu. Horrela, EEBak instituzioen garrantzia onartu eta bere marko teorikoan sineskeria, historia eta politika ekonomia aztertzeko garrantzitsuak direla justifikatzen du.

Ikuspegi honen arabera ekonomia ortodoxoak sortu diren instituzio ezberdinetan oinarrituz, ezin du ongi azaldu kapitalismoa. Beraz instituzio bakoitzak ekonomian duen betebeharra zehatz-mehatz aztertzeko beharra sentitu zuten. Ekonomia-sistemaren oinarrian ez du gizabanakoa kontuan hartzen, Komunitatea baizik, eta giza portaerari loturiko teoria sozialak eta ekonomiaren osagai soziala kontuan izaten ditu. Beraz, ekonomiaren garapena prozesu historiko eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik azaltzen du. Agentzien teoria, transakzio-kostuak, informazio inperfektua bezalako kontzeptuetatik abiatuz merkatua gaitz guztiak sendatzeko ez dela baliagarria ondorioztatzen dute eta Estatuaren parte-hartzea justifikatzen dute. Ekarpenik garrantzitsuena instituzioak berriro ere garapenaren teoriar barneratzea eta soziologia, psikologia, zientzia politikoa, zuzenbidea eta antzeko

diziplinatako kontzeptu eta kategoriak barneratzeko egindako esfortzua dugu.

Egungo egileek ondorengo ikerketa lerroetan espezializatu dira: 1) Transakzio kostuen ezaugarrien azterketa, 2) Jabetza eskubideen azterketa, 3) Kontratu ez osoen teoria ekonomikoaren oinarriko kontzeptuen definizioan, 4) Agentzien teoria. Merkatu lehia ahuldu dezaketen presio taldeak ere aztertzen dituzte.

5.2. Tokiko Giza Garapena (TGG)

Azken hamarkadetan globalizazioak ekonomiaren eta politikaren arlo guztiak hartu dituen neurrian, tokiko¹ eremuaren eta tokiko prozesuen gaineko kezka indarra hartu du pixkanaka, beraz, Tokiko Giza Garapenaren (TGG) ikuspegia garatzen ari den ikuspegia da. Giza garapenetik abiatu eta tokiko esparrutik jardutearen aldeko apustua egiten duen arren, TGG ez da giza garapenaren eta tokiko garapenaren justaposizio hutsa (Villalba, Larrañaga & Jubeto, 2011).

Tokiko esparruaren aldeko apustua egiten da, giza garapenean oinarritutako prozesuak aztertuz esparru egokiena dela argudiatuz. Baina, tokiko alderdia ez da modu isolatuan aztertu behar. Tokikoak komunitatearen eta lurraldearen zentzua berraurkitzen laguntzen duen heinean, sistema ekonomiko eta sozial bidezkoagoa eta gizatiarragoa nola eraiki pentsatzeko lekurik egokiena bezala ulertu behar da. Beraz, erronka nagusia giza garapenaren kategoriak tokiko estrategian eraginkor bihurtzea da (Villalba, Larrañaga & Jubeto, 2011).

TGG-ak, Sen-ek aurkeztutako eta giza garapenaren ezaugarri nagusia den, gaitasunen ikuspegia proposatzen du, hots: garapena ebaluatzerakoan pertsonen gaitasunen barnean kokatzen da eta ez gizarteak oro har dituen baliabideetan bakarrik. Ongizatearen kontzeptu nagusiarekiko aldaketa garrantzitsua bat proposatzen du ikuspegi honek beraz, baliabideen eskuragarritasunean oinarritu beharrean pertsonen eta komunitatearen gaitasunean oinarrituko da. Aldaketa honen aldeko apustua egitearen arrazoiak ondorengoak lirateke: garapena lortzeko indarrean jartzen diren politika ezberdinak ebaluatzerakoan dimentsio ekonomikoaz gain beste batzuk ere kontuan izaten

1. Zenbaitetan, ez dago guztiz argi zer ulertzen den “tokikotzat”. Tokiko giza garapenaz hitz egiten denean, tamaina bateko zein besteko lurraldeetan gauza daitekeen garapen-mota bat aipatzen da (giza garapena), eta tokikoa komunitatearen edo udalerraren berdintzat jotzea sinplifikazioa da. “Tokikoak” badu zentzua “kanpotik edo goitik” begiratzen zaionean, eta, hala, eskualdeak tokiko eremuak dira herrialdetik edo eremu transnazionaletik (globala) begiraturik, probintziak ere izan daitezke, eskualdetik begiraturik, bai eta udalerrira ere, probintziatik. Tokikoa eremu zabalago batekiko kontzeptu erlatiboa da, eta tokikoa aztertzeko eremu barnehartzaileago hori aipatu beharra dago (Larrañaga & Jubeto, 2011).

hasi dira pixkanaka, eta, ongizateaz hitz egiterakoan pertsoneri geroz eta garrantzia handiagoa eskaintzen zaie.

“Desarrollo Humano Local: de la teoría a la práctica” (Dubois, Guridi & López, 2011) lanean jasotzen denez azken hamarkadetan tokiko garapena helburutzat dituzten proposamen teoriko eta politiko asko aurkeztu dira. Proposamen hauek bi multzotan sailkatu daitezke: Batetik, egun indarrean dagoen ekonomia-eredua maila lokalean errepikatzeko asmoa dutenak. Bestetik, aurreko proposamenak kritikatzeko gain beste bi ezaugarri nagusi partekatzen dituztenak: i) gizartearen garapena bere osotasunean kontuan izaten dituztenak, hau da, dimentsio ekonomikoaz haratagoa doazen proposamenak eta; ii) garapenaren izaera endogenoa, eragile eta baliabide lokalei protagonismoa, azpimarratzen dituztenak.

Giza garapenaren ikuspegia Garapenerako Nazio Batuen Programa (GNBP) baino zabalagoa bada ere, GNBP-k giza garapenari buruz argitaratzen dituen txostenak ezinbesteko erreferenteak dira TGG aztertzeko. GNBPren arabera, giza garapena prozesu bat da, pertsonen aukerak zabaltzea bilatzen duen prozesua. Aukera horiek, hasiera batean, anitzak izan daitezke, eta aldatu egin daitezke denboraren joanean.

TGG-etik pertsonen eta taldeen benetako garapena bilatzen duten tokiko komunitateen jarduera estrategia proposatzen da. Tokiko komunitatearen ahalduntzea lortzea da estrategia horren helburua, beren garapen baldintzak definitzen dituzten mekanismoaren gaineko kontrol handiagoa izan dezaten. Lurralde batean gizarte eragileak modu zuzenean eta pluralistan eratzeko, ezinbestekoa da gaitasunen garapen prozesu bat eragitea. Izan ere, gizarte talde guztiak ez baitute gizartearen parte hartzeko baldintza bera eta gizarteari egiten dioten ekarpenari ez zaio aitortzen bera ematen.

TGGa aztertzeko kategorien lanketa teorikoa hasi berritan daude, baina, hala ere, badaude esperientzia praktikoko batzuk, programa-adierazpenekin eta operazio-tresnekin. Esperientzia praktikoko ezagunenaren artean, Porto Alegren (Brasil) partaidetzako aurrekontu publikoak atontzeko prozesuak nabarmentzen dira. Herriarrien partaidetza duten aurrekontuek pertsonen beharrianak kontuan hartzen dituzte, eta, batez ere kolektibo behartsuenei begiratzen dieten arren, badute ikuspegi zabalagoa. Partaidetzak, orokorrean, inbertsioak lehentasunezko arloetara bideratzen laguntzen du, komunitatearen giza garapenerako funtsezkoak diren arloetara, alegia.

Sarritan, zerbitzu publikoak ematearen erantzukizunak deszentralizatzeko prozesuak tokiko giza garapenaren bilaketarekin lotzen dira. Hala ere, deszentralizazio oro ez da eraginkor eta eraldatzailea. Giza garapenean izango duten eragina tokiko testuinguru sozial eta politikoaren arabera izango da, bai eta herrialdeko baldintzen arabera, bereziki herrialde horretako instituzioen eta administrazio-gaitasunen arabera nahiz

desberdintasunaren kasuen eta ereduaren arabera ere. Deszentralizazioa eraginkorra izango bada, boterea eta erantzukizunak transferitu behar dira, eta ez soilik goi-mailan prestatutako politikak abian jarri.

Amaitzeko azpimarratu behar da TGGari programek izaera parte-hartzailea dutela, eragile lokalek zein lurralde sareek, orokorrean, garapen proiektu eta ekintzen diseinuan, betearaztean eta kontrolean parte hartzen dute. Horretarako nazioarteko erakundeen babesa dute, NBBP eta LANE, pobrezia erazi eta herrialde txiro eta aberatsen arteko desberdintasunak gainditzeko apustu sendoa egin dutenak esaterako.

5.3. Generoa eta Garapena (GEG)

1960ko hamarkadaren hasieran genero-harremanen inguruko politiken neutraltasunari buruzko kritika aitzindariak garapenerako lankidetzaren arloan gertatu zen. Izan ere, sasoi hartan argi geratu zenez, modernizazio teoriaren ondorioz lortutako hazkunde eta teknologiaz jabetzeko estrategiek emakume eta gizonengan eragin desberdina izan zuten. Ester Boserup aintzindaria izan zen *Emakumeak Garapenean* (EG) deritzen ikerketetan eta *Woman's role in economic development* (Boserup (1970)²) lanean ongi adierazi zuen familia-sistemei, lanari eta emakumeen estatusari dagokionean eskualde batetik bestera alde handia dagoela. Horrez gain, emakumeak garapen-politiketarik baztertzen zituztela eta garapen-estategiek gehienbat gizonezkoek ekartzen zirela onura azpimarratu zuten.

Sasoi hartan egin ziren ikerketek azpimarratu zuten, lan merkatuan emakumeen presentzia gizonekin alderatuta oso txikia zen, emakumeek analfabetismo tasa altuagoa zuten, jarduera politikoetatik at zeuden eta artea, zientzia, teknologia bezalako arloetan emakume oso gutxi zegoen. Beraz, Emakumeak Garapenean ikuspegitik, indarrean zegoen garapen eredia zalantzan jarri gabe, sexuen arteko desberdintasuna murriztu asmoz emakume eta gizonen aukera berdina eskaintzea proposatu zen. Horretarako, emakumeen independentzia ekonomikoari garrantzi handia eskaini zitzaion eta emakumeak lan merkatuan sartzearen beharra ezinbestekotzat ulertzen zen.

EG ikuspegiaren baitan hiru estrategia nagusi bereizten dira: Ekitatearena, Pobreziaren Kontrakoa eta Eraginkortasunarena. Ahalduzkoen estrategia, onspen eta zabalkunde eskasagoa izan zuena, ere planteatu zen.

Aipatu den lehen strategiaren, ekitatearen edo aukera berdintasunaren, helburu nagusia instituzioak eta gizarte sentsibilizazioa aldatuz

2. Hementxe aipatua: Larrañaga & Jubeto (2011).

emakume eta gizonen estatus juridiko berdina lortzea zen. Estrategia honek babesik handiena 1975. urtean jaso zuen Mexikon ospatu zen Emakumeen Nazioarteko I. Biltzarrean Nazio Batuen Erakundeak Ekitatearen estrategia bere Ekintza Planean jasotako printzipioetan barneratu zuenean.

Bigarren estrategiak, pobrezia gainditzeko estrategiak, emakumeak prozesu produktiboan duen ekarpena aztertzearen aldeko apustu eskatzen du. Orokorrean pobrezia emakumearen aurpegia duela onartu zen eta egoera hartatik ateratzeko diru-sarrerak areagotzeko aukerak aztertu ziren. 1980. urtean Copenhagen ospatu zen Emakumeen Nazioarteko II. Biltzarrean emakumeak garapenean integratzeko hauen izaera produktiboa onartu behar zela azpimarratu zen. Beraz, biltzarraren lehenetasuna emakumeentzako enplegu, osasun eta hezkuntza bezalako gaiak aztertzea izan zen. Sektore hauetan eginiko inbertsioek emakumea barneratzen den arlo produktiboen eraginkortasuna handitzen baitu.

Hirugarren estrategia, eraginkortasunarena, 1981-1991 urteetan nagusi zen ekonomian joera neoliberal indarra hartzen hasi zen garaian, merkatu librearen ideia indartzen ari zen garai berean. Generoaren aldekoek ere eraginkortasunaren eta hazkundearen aldeko apustua egin zuten. Emakumea garapen prozesuak erabili ez duen baliabide moduan ulertzen hasten dira, beraz, emakumea merkatuan barneratuz garapena bultzatzen lagunduko dutela suposatzen da. Zentzu honetan bai Munduko Bankuak zein Nazioarteko Diru Funtsek ere garai hartan bizi zen ekonomia-krisiari aurre egin nahirik proposatu zituzten erreforma neurrietan ere ideia bera barneratu zuten. Sektore publikoak osasuna eta hezkuntzara bideratutako gastua murrizteko du baita emakumei etxeko lanek eragiten dieten kargak murrizteko jasotako laguntzak ere. Estrategia honek ez zituen kontuan izan emakumeak merkatuan barneratzeak eragin zitzakeen kostu sozial eta pertsonalak ezta emakume eta gizonen arteko boterearen birbanaketa ere.

Testuinguru horretan, EG ikuspegia kritikatzeko hasi ziren 1970eko hamarkadaren bigarren erdialdean eta 1980ko hamarkadan. Azkenean Nairobin 1985ean ospatu zen Emakumeen Nazioarteko III. Biltzarrean, EG ikuspegiari lotutako estrategiak zalantzan jarri zituzten eta hautabidezko paradigma berri baten beharra azpimarratu zuten. Paradigma berrian, emakumeen arazoez bakarrik aztertu beharrean, gizartearen mendeko eta bazterreko rolak ezartzen dizkien “genero-sistema” baten ondorioztat hartuko dira.

Orduz gozotik, Nazio Batuen esparruan, *Generoa eta Garapena* (GEG) deitzen den ikuspegia lantzen hasi zen. Aipaturiko bi ikuspegiak, EG eta GEG, ezaugarri nagusiak 2. Taulan jaso dira.

2. Taula: EG eta GEG ikuspegiaren alderaketa

Emakumeak Garapenean (EG)	Generoa eta Garapena (GEG)
Emakumeak arazo moduan ulertzen ditu. Funtzioen teoriar oinarritzen da hauen aldaketa eta eraketan sakondu gabe	Ordena soziala arazoaren iturri moduan ulertzen du. Boterearen teoriar eta gizarte harremanen oinarritzen da azalpena
Emakumeak aparteko kategoriar moduan	Genero arteko harreman sozialak eta lanaren banaketa sexuaren ikuspegitik
Emakumeak garapen eredituk kanpo mantentzea	Desorekak eta botere-mendekotasun harremanek emakumea egoera desabantailan
Emakume eta gizonen egoera eta aukerak berdin; garapen eredu eraginkorrago lortu	Boterea orekatu; sexuen arteko ekitatea. Giza Garapen iraunkorra. Demokrazia eta parte-hartzea; gizon eta emakumeak eskubide subjektu moduan ulertu
Indarrean dagoen garapen ereduaren emakumea barneratu; ordaindutako lan munduan barneratu	Emakumearen autonomia eta autodeterminazio prozesuak erraztu; lanaren banaketa sexualak eragindako mendekotasun egoerak gainditu
Emakumearen eraginkortasun eta diru-sarreen maila areagotu. Emakumeei zuzendutako proiektuak.	Aukerak ugaltu, baliabide eta onuren eskuragarritasuna zabaltu. Emakumeei eragiten dieten erabakietan parte-hartze autonomoa bermatu.

Iturria: De los Rios (1995).

Generoa eta Garapena (GEG) deitzen den ikuspegiaren arabera garapena politika, gizarte eta ekonomiako indarren eragina jasaten duen prozesu konplexu bat da zeinetan politika, ekonomia eta kultura arloetan sexu arteko harremanak eta sexuaren araberako lan-banaketak agertuko diren. Horren adierazgarri dira, alde batetik, 1995. urtean Beijing-en ospatu zen Nazioarteko Emakumeen IV. Biltzarrean onartu zen adierazpen eta ekintza plana, zeinetan ondorengo jasotzen den:

“La igualdad entre mujeres y hombres es una cuestión de derechos humanos y constituye una condición para el logro de la justicia social, además de ser un requisito previo necesario y fundamental para la igualdad, el desarrollo y la paz. Para obtener un desarrollo sostenible basado en las personas, es indispensable que haya una relación transformada, basada en la igualdad entre mujeres y hombres” (Naciones Unidas, 1995, or. 13)

Bestetik, 189 herrialdek 2000. urtean sinatutako Milurteko Adierazpenean hirugarren Milurteko Garapen Helburuak generoen berdintasuna eta emakumeen botere-hartzea sustatzea bultzatu nahi du.

5.4. Sumak Kawsay eta Suma Qamaña

Sumak Kawsay ondo-bizitzea adierazten duen quichua herri indigenen ahotsa da eta barneratzen duen ideiarekin arabera bizi on bat bilatu behar da eta ez hobea, besteena baino hobea edo ahalegin guztiak bizitza hobetzeko xahutzen dituen. Suma Qamaña kontzeptuaren jatorria aymara boliviarra da eta komunitatearen ideia bereganatzen du, guztientzat barne armonia nahikoa duen gizarte on bat.

Bai Sumak Kawsay zein Suma Qamaña kontzeptuak Ekuador eta Boliviako Konstituzioetan jaso dira, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, 2008ko Ekuadorreko Konstituzioaren ondokoa irakur daiteke:

“decidimos construir una nueva forma de convivencia ciudadana, en diversidad y armonía con la naturaleza, para alcanzar el buen vivir, el sumak kawsay” (Asamblea Nacional Constituyente de Ecuador, 2008, or. 15)

[...]

“Se reconoce el derecho de la población a vivir en un ambiente sano y ecológicamente equilibrado, que garantice la sostenibilidad y el buen vivir, sumak kawsay” (or. 24)

Bestalde, 2009an onartu zen Boliviako Konstituzioak Estatuaren printzipio, balore eta helburuei buruzko II. Kapitulua 8. Artikuluan ondorengo jasotzen du:

“El Estado asume y promueve como principios ético-morales de la sociedad plural: ama quilla, ama llulla, ama suwa (no seas flojo, no seas mentiroso ni seas ladrón), suma qamaña (vivir bien), ñandereko (vida harmoniosa), teko kavi (vida buena), ivi maraei (tierra sin mal) y qhapaj ñan (camino o vida noble)” (República de Bolivia Asamblea Constituyente Honorable Congreso Nacional, 2009, or. 6)

Urte batzuk lehenago, kapitalismotik urrundu nahi duen proposamenen artean Boliviak apustu iradokitzailea egin zuen bere Nazio Garapen Planean barneratu zuen garapenaren definizioarekin:

BOLIVIAKO 2006KO GARAPEN NAZIO-PLANAREN HELBURUA: ONDO BIZITZEA

Ondo bizitzea herrien eta komunitateen elkargunea da, aniztasuna eta nortasun kulturala errespetatuz. Hau da, “ondo bizitzea gure artean”. Elkarbizitza komunitarioa da, kulturen artekoa eta botere-asimetriarik gabekoa, “ezin da ondo bizi, gainerakoak txarto bizi badira”. Komunitatearen partaide moduan bizitzean datza, azken honen babespean. Halaber, ondo bizitzeak naturarekin harmonian bizitzea esan nahi du “inguratzen gaituenarekin orekan bizitzea”. Orduan, bere esanahian “zurekin eta nirekin ondo bizitzea” sartzen da, eta hau Mendebaldeko “hobeto bizitzea” kontzeptutik aldentzen da, azken hori norbanakoarena da, gainerakoengandik bananduta, eta batzuetan besteen kontura, eta naturatik urrunduta. (Jubeto & Areskurrinaga, 2010)

Kapitalismoan oinarritutako garapen ereduaren ondorioei buruzko zalantzak orokortu egin dira azken urteetan, batik bat, planetari eragiten ari zaion ingurumen kalte larriak direla eta. Kalte horien adibide bat da lurraren berotze globala. Sumak Kawsay zein Suma Qamaña indarrean dagoen garapen eta hazkunde ekonomikoaren paradigmaren alternatiba moduan agertu dira. Gizakien arteko eta gizakiak bere ingurune sozial eta naturalarekin duen harremana beste modu batean planteatzeko aukera eskaintzen dute. Denbora luzez alboratuta egon diren herri indigenen ikaskizunak berreskuratu dituzte, naturarekin harmonian bizitzeko behar diren orekak ezinbesteko baldintza moduan onartuz.

Ongi Bizitzea ikuspegiaren arabera garapenaren helburu nagusia ez da hazkunde ekonomikoa, pobreziaren eta bazterketaren erauzketa baizik. Horretarako, ordea, eredu berri bat lortu behar da; diru-sarrerak, aberastasuna eta aukeren banaketa ekitatiboa ahalbidetu eta pertsonen zein talde sozialen duintasuna eta eskubideak bermatuko dituena. Beraz, egun indarrean dagoen garapen ereduarekin alderatzen badugu Ongi Bizitzea ikuspegiak: 1) hazkundera oinarritutako “garapen okerra” zalantzan jartzen du, 2) garapen helburutzat izan beharrean aldaketa kualitatiboa eragingo duen prozesu moduan ulertzen du, 3) lehengaien esportazioetan oinarritutako ereduak gainditzeko aukera eskaintzen du (Escobar, 2011).

Tortosak (2009) jasotzen duenaren arabera gaur egun Ongi-Bizitzeari buruzko lanetan jasotzen diren antzeko ideiak 1973an Schumacher-ek plazaratutako “*Lo pequeño es hermoso*” eta “*Una economía como si los seres humanos importasen*” edo Manfred Max-Neef-ek 1993an argitaratutako “*Desarrollo a escala humana*” lanetan ere landu ziren. Behar gehien dituztenen baldintzak hobetzeko proposamen ezberdinak dira. Historian zehar ekarpen hauek unibertitate, akademia edo nazioarteko erakunde mailan geratu dira errealtatean apenas eraginik izan gabe.

Orain, aldiz, Sumak Kawsay eta Suma Qamaña, jatorri indigena eta urteetan marjinatuak izan diren kontzeptuek garrantzia hartu dute: Sinbolikoki, Konstituzioetan jaso diren heinean eta garapen ereduek eragindako arazoei irtenbidea eskaintzeko asmoa erakusten dutelako. Bestalde, garapena, periferiatik eta ez zentrotik bakarrik eta periferiako marjinatuengandik eta ez periferiako eliteengandik birplanteatzeko aukera sortu dute.

6. SINTESI GISA

Artikuluaren zehar, Bigarren Mundu Gerraren ondoren herrialdeen artean sortu ziren desberdintasunez jabetuta azaleratu ziren eta hazkunde

ekonomikoaz haratago arduratzen diren teoria ezberdinak aurkeztu dira. Zentzu honetan, garapenari buruzko paradigmen bilduma bat egin da XX. mendearen erdi aldetik hasi eta gaur egun arte. Argi geratu denez, momentu jakin bakoitzean paradigma bakar baten hegemonia ezin daiteke baieztatu, bai ordea pentsamendu ezberdinak koexistu izana. Hurrengo taulan (3. taula) landu diren garapenaren politika ekonomikoari buruzko hainbat teorioren ezaugarriak jaso dira. Guztiek, ipar eta hegoko herrialdeen garapen maila ezberdina aztertutute eta azpigaraturik dauden herrialdeen pobrezia aurre egiteko irtenbideak planteatzen saiatu dira.

3. Taula: Garapenaren ekonomiaren teoria batzuk

	MODERNIZAZIOAREN TEORIA	TEORIA ESTRUKTURALISTA	TEORIA NEOLIBERALA	TEORIA ALTERNATIBOAK
50	Etapen teoria (50-60 hamarkada)	Elkartruke terminoa- ren gainbera (50)	Desadostasun kontserbadorea (50-60)	
	Modelo dinamikoak (50-60 hamarkada)	Zentro-Periferia (50)		
60	Gurpil-zorua (50-60 hamarkada)	Dualismoa (60)		
70	Hazkunde oreka- tua vs hazkunde desorekatua (50-60 hamarkada)	Garapenari oztopoa (60)		Oinarrizko beharrak (70-80)
80	Aldaketa estrukturala (50-70 hamarkada)	Menpekotasun estrukturalista (70)	Barne liberalizazioa (70)	Garapen autonomia (70-80)
		Elkarmenpekotasu- na (80)		Nazioarteko ordena (70-80)
90			Erreforma ekono- mikoa (80-90)	Dimentsio anitzeko garapena (70-80)
		Neoestrukturalis- moa (90)	Washingtongo Kontsentsua (90)	Giza Garapena eta Garapen Iraunkorra (80-90)

	MODERNIZAZIOAREN TEORIA	TEORIA ESTRUKTURALISTA	TEORIA NEOLIBERALA	TEORIA ALTERNATIBOAK
2000		Ekitatea, garapena eta hiritarrak (2000)	Post-Washingtongo akordioa (2000)	Giza Garapena eta Garapen Iraunkorra (90-2000) Ikuspegi berriak (90 amaiera eta 2000 hamarkada): Ekonomia Instituzionalista Berria (EIB) Tokiko Giza Garapena (TGG) Generoa eta Garapena (GEG) Sumak Kawsay Suma Qamaña

Iturria: Egileek egina.

Modernizazioaren eskolak garapen prozesuan industrializazioaren garrantzia azpimarratzen zuen. Modernizazioaren teoriaren aldeko jarrera zuten autoreen iritziz, biztanleko nazio-errentaren hazkundeak lotura estua zuen ekonomia-garapenarekin. Denbora pasatu ahala, garapen horren mozkin batzuk biztanleria osora zabalduko zela uste zuten.

Eskola estrukturalistaren arabera, atzerriko lehiak eta barne-merkatuaren tamaina txikiak eragozten zuten barne-garapena. Beraz, sektore industrialaren garapenari esker nazio-barneko egitura birmoldatu eta ekonomia sendoago bat lortu nahi zuten. Horretarako, kanpo-lehia kontrolatu eta merkatuen tamaina txikia handitzeko neurri zehatzak indarrean jarri behar izan zituzten. Estatuaren papera funtsezkoa izango zen eskola honentzat.

Kontrako jarrera erakutsi zuen eskola neoliberalak. Eskola honen ekarpenik azpimarragarrienaren arabera merkatuan gobernuek egiten dituzten esku-hartze guztiak ez dira baliagarriak garapena sustatzeko. Are gehiago, azpigarapena Estatuaren parte-hartzeak eragiten duen merkatuaren funtzionamendu ezegoki batek eragindako egoera bezala ulertzen du. Beraz, azpigarapena gainditzeko baliabideen eraginkortasunaren aldeko apustua egiten du. Honela, 1990eko hamarkadan Nazioarteko Finantza Instituzioen eta Iparraldeko herri garrantzitsuenetako (G-7) agintariek garapena bermatzeko eman beharreko pausuak Washingtongo Kontsentsuan jaso ziren.

Hautabidezko edo garapenaren teoria alternatiboak bezala jaso direnak, orokorrean, banakako oinarriko beharren asetzak duen garrantzia azpimarratzen du, garapena pobrezia murrizketarekin aberastasunaren areagotzearekin baino gehiago lotuz. Esaterako, Ekonomia Instituzionalista

Berriak (EIB), giza portaerari loturiko teoria sozialak eta ekonomiaren osagai soziala kontuan izaten ditu. Tokiko Giza Garapenak (TGG), tokiko esparruaren aldeko apustua egiten du, sistema ekonomiko eta sozial bidezkoago bat eraikitzeke lekurik egokiena bezala ulertzen duelarik. Generoa eta Garapena (GEG) ikuspegiaren arabera generoen berdintasuna eta emakumeen botere-hartzea sustatu nahi da. Amaitzeko, Sumak Kawsay eta Suma Qamaña-ak guztientzako bizi on bat bilatu behar dela defendatzen dute, ez hobeagoa, besteei baino hobeagoa edo ahalegin guztiak bizitza hobetzeko xahutzen dituen bizi bat.

7. BIBLIOGRAFIA

ASAMBLEA NACIONAL CONSTITUYENTE DE ECUADOR. (2008): *Constitución de la República de Ecuador*.

http://www.asambleanacional.gov.ec/documentos/constitucion_de_bolsillo.pdf helbidean eskuragarria

BOSERUP, E. (1970): *Women's role in Economic Development*. New York: St. Martin's Press.

BUSTELO, P. (1992): *Economía del desarrollo. Un análisis histórico*. Madrid: Editorial Complutense.

CABALLERO, G. (2011): Economía de las instituciones: de Coase y North a Williamson y Ostrom. *Ekonomiaz* (77), 15-51.

DE LOS RÍOS, R. (1995): *Género, salud y desarrollo: un enfoque en construcción*.

<http://www.ops-oms.org/Spanish/DD/PUB/PC541-3-18.pdf> helbidean eskuragarria (Kontsulta: 2012ko otsailaren 25a).

DUBOIS, A.; GURIDI, L. eta LÓPEZ, M. (2011): *Desarrollo Humano Local: de la teoría a la práctica*. Bilbo: Hegoa.

ESCOBAR, A. (2011): Una minga para el posdesarrollo. *Signo y Pensamiento*, XXX (58), 306-312.

FRIEDMAN, J. (1973): La estrategia de los polos de crecimiento como instrumento de la política de desarrollo. In: F. Perroux, J. Friedman eta J. Tinbergen, *Los polos de desarrollo y la planificación nacional, urbana y regional* (or. 27-56). Buenos Aires: Ediciones Nueva Visión.

HIDALGO-CAPITÁN, A. L. (2011): Economía Política del Desarrollo. La construcción retrospectiva de una especialidad académica. *Revista de Economía Mundial*, 28, 279-320.

HIRCSHMAN, A. O. (1961): *La estrategia del desarrollo económico*. México: Fondo de Cultura Económica.

- JUBETO, Y. eta ARESKURRINAGA, E. (2010): Garapen-bideko ekonomiak. In: M. Zubano Irizar et al., *Ekonomia Globala. Gizarte globalerako oinarri berriak* (or. 197-228). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- LARRAÑAGA, M. eta JUBETO, Y. (2011): *Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna*. Bilbo: Hegoaren Lan Koadernoak 56. zenbakia.
- LEWIS, W. A. (1968 {1955}): *Teoría de desarrollo económico* (3. ed.). (R. Stavenhagen, & Ó. Soberón, Itzul) México: Fondo de Cultura Económica.
- NACIONES UNIDAS. (1995): *Informe de la Cuarta Conferencia Mundial sobre la Mujer. A/CONF.177/20/Rev.1*. Nueva York: Naciones Unidas. <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/Beijing%20full%20report%20S.pdf> helbidean eskuragarri.
- NAREDO, J. M. (1996): *La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías básicas del pensamiento económico*. Madrid: Siglo XXI.
- NURKSE, R. (1955): *Problemas de formación de capital en los países insuficientemente desarrollados*. México: Fondo de Cultura Económica.
- PERROUX, F. (1964): *La economía del siglo XX*. Barcelona: Ariel.
- PERROUX, F. (1973): Nota sobre el concepto de “polo de crecimiento”. In: F. Perroux, J. Friedman eta J. Tinbergen, *Los polos de desarrollo y la planificación nacional, urbana y regional* (or. 9-26). Buenos Aires: Ediciones Nueva Visión.
- PREBISCH, R. (1950): *El desarrollo económico y sus principales problemas*. New York: Naciones Unidas, CEPAL.
- REPÚBLICA DE BOLIVIA ASAMBLEA CONSTITUYENTE HONORABLE CONGRESO NACIONAL. (2009): *Constitución Política del Estado*. http://www.planificacion.gob.bo/files/nueva_constitucion_politica_del_estado.pdf helbidetik eskuratua
- RODRIK, D. (2006): Goodbye Washington Consensus, Hello Washington Confusion? A review of the World Bank’s Economic Growth in the 1990s: Learning from a Decade of Reform. *Journal of Economic Literature*, XLIV, 973-987.
- ROSENSTEIN-RODAN, P. N. (1960): Notas sobre la teoría del “gran impulso”. In: H. S. Ellis eta H. C. Wallich, *El desarrollo económico y America Latina* (or. 67-93). México - Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- ROSTOW, W. (1959): The Stages of Economic Growth. *The Economic History Review*, 12 (1), 1-16. <http://www.jstor.org/stable/2591077>. (Kontsulta: 2012ko urtarrilaren 9a).
- SACHS, J. D. eta WARNER, A. M. (1999): The big push, natural resource booms and growth. *Journal of development economics*, 59, 43-76.
- SO, A. Y. (1990): *Social change and development: modernization, dependency, and world-system theories*. Newbury Park, California: SAGE.
- STIGLITZ, J. E. (1998): Más instrumentos y metas más amplias para el desarrollo. Hacia el Consenso Post-Washington. *Instituciones y Desarrollo*, 13-57.

- TORTOSA, J. M. (2009): *Sumak Kawsay, Suma Qamaña, Buen Vivir*. <http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/nombresproprios/Documents/NPTortosa0908.pdf> helbidean eskuragarri.
- VILLALBA, U.; LARRAÑAGA, M. eta JUBETO, Y. (2011): *Tokiko Giza Garapena, genero-ekitate eta partaidetza Euskal Lankidetzaren hamar urteko epean. Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008*. Bilbo: Hegoaren Lan Koadernoak 55. zenbakia.
- WORLD BANK. (2005): *Economic Growth in the 1990s: Learning from a Decade of Reform*. Washington D.C.: World Bank.